Etxebitzita eta Gizarte Gaietako Sailak, orrialde honen bitartez, EAEko eraikintzaren sektoreko enpresen, elkarteen eta beste garrantzizko erakunde batzuen arteko topagunea sortu gura du, enpresak kudeatzeko esperientziak elkarri jakinarazteko eta erakundeen jarduerarako garrantzizko teknologia berriei buruzko informazioa eskuratzea errazteko.

Webguneak **Eraikali buruzko informazio osoa** ematen du, baita ekimen honen barruan garatutako projektuei eta materialei buruzkoa ere. Beraren bitartez doan eskuatu ahal ditu sektoreko edozein enpresak programan egindako **argitalpenak**, hala nola, Ingurumenari buruzko Legeen Bilatzailea, Aribide Egokien Memoriak, Osorik Kudeatzeko Eredua eta Eraikintzako Mikro-eteentzako ISO 9001 Gidaliburua.

Kalitatea kudeatzeari eta etengabeko hobekuntzari buruzko gaiei buruzko itaun teknikoei erantzuten zaie **Eraikalen itaun-ontzian**. Gainera, berau zuzenean eskuratzea bai teknologi ikuspuntutik bai sektorearen prozesuak hobetzeko antolakuntza eta berrikuntza ikuspuntutik sektorea kezka dezaketen gaiak eragileen eta Etxebitzita eta Gizarte Gaietako Sailaren artean trukatzeko oinarria da. Hain zorratzea lan-ekimen berri posibleak aztertzeko funtsezkoa da.

Kudeaketa eta hobekuntza etengabea sustatzea da Eraikalen eragilea. Hori dela eta, webgune honen bitartez arreta berezia

jarri nahi da eraikintzaren sektoreko kalitateari, segurtasunari, euskarritasunari eta berrikuntzari buruzko gaien gainean.

Aurreko oinarrizko hartuta, Eraikal webgu-nean jasotzen dira **sektoreari buruzko albiste, gertaera eta ekitaldi garrantzitsuak**, enpresak gai berri eta interesgarrietara hurbiltzen dituztenak. Beroriek une oro ematen dute haien inguruko informazio eguneratua.

Espero denez, Eraikal web orrialdea **hobekuntza etengabeaz oharraraztea bultzatzeko tresna** bihurtuko da eta sektoreko enpresen artean kultur aldaketa bultzatzeko balio izango du. Enpresei inguruan

1. Eraikalek badu web orrialdea
2. Etxebitzak Eusteko moduan Eraikitzeko Gidaliburua eta Balorazio Kodea
3. Zaratarik ez
4. EAEko gaikako eraispen-proiektuak egiteko Gida Metodologikoa
5. Hemeroteka
6. Itaun-postontzia

gertatutako aldaketei garaiz aurre egitea eta beraien lehiakortasuna hobetzen duten erabaki estrategikoak hartzea ahalbidetzen duen informazioa eman gura ziae orrialde honen bitartez.

Ikus ezazu Eraikalen web orrialde berria: www.ej-gv.net/eraikal

The screenshot shows the official website of the Basque Government's Department of Housing and Social Affairs (Ertzaintza eta Gobernuko Saria). The main navigation menu includes 'ESPAÑOL / EUSKERA', 'HARPIDETZA-ZERRENDA', 'ETXE-BIZITZA ETA GIZARTEA', 'ALDE MUGATUA', 'ERAKAL PROJEKTUAK', 'TRADOKIZUNAK', and 'AGENDA'. Key sections visible include 'ERAKAL PROGRAMA' (with links to 'Eraikal Programa', 'IRAKURLEAREN', 'Eraikal Aldizkariak', 'Arbide Egokiak', 'Eraikal Proiektuak', 'Ingurumendari buruzko Legia', 'Bilatzailea', 'Osorik Kudeatzeko Eredua'), 'BERRI NABARMENAK' (with news items like 'Laneo Segurtasun eta Osasunerako Europar Astea' and 'Aldaketaren urtea'), 'HARPIDETZA-ZERRENDA' (with links to 'Izena', 'Deitartekoak', 'Email', 'Empresa', 'Jardunera', 'Gai interesgarriak', and a sidebar for 'Eraikal Aldizkariak', 'Estetika interesgarriak', 'Gertaerak', 'Oihiko galderak (FAQ's)', 'Memoriak', 'Bermak', and 'Gai guztiek'). A footer note at the bottom right states: '(*) Eremuak denigorrerekosak dira. Interesatuk ematen dituen datuak, barker bakanik erabiliko dira dagokion prozedura edo egitzan aurreikustako helburuetaarako. Aipatutako 15/1999 Laga Organikaren arabera, datu-lagatzaleak adozain momentuan izango dira sarrbi, zuzenketak, ezeztapen eta aurkantza'.



aurrera doan herria

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIZTAKO SAILA

un país en marcha



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebitzitzak Eusteko moduan Eraikitzeko Gidaliburua eta Balorazio Kodea



Europar Batasunak "hiri-ingurumenaren gaineko gai-estategia"¹ren alde egin du bere adierazpenean¹. Bertan ezarri dueenez, etxebitzitzak eusteko moduan eraikitzeko helburuz, eraikinen eta eraikuntzaren euskarritasunari buruzko prestazioak osorik ebaluatzeko amankomuneko metodologia garatu behar da. Ebaluazio hori egiteko kontutan hartu behar da eraikitako inguruneen bizi-ziklo oso-oso. Era berean, metodologia honen barruan, eraikinen energi eragingarritasunari buruz eta beste garrantzizko ekinmen batzuei buruz dagoen metodologia sartu beharko da.

Metodologia hau aplikatuz, eraikinak hasieratik hobetu ahalko dira, diseinu-fasetik; eta dauden eraikinak berriro gaitzeko eta hobetzeko eragiketetan erabaki zuzenak hartza egongo da. Horrela, diseinu-fasean hartutako erabakiek eragin handia izango dute eraikinaren bizi-zikloko euskarritasunean, energi

kontsumoa, ur-kontsumoa, barruko airearen kalitatean eta errausketa-hondakin birziklakortasunean eta berrabilpenean.

Behar hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak barruratu du. Berak, Etxebitzitzak eta Gizarte Gaietako Sailaren berari atxikitako Visesa eta Orubide sozietate publikoen bitartez, Industri, Merkataritza eta Turismo Sailak, EEEren bitartez, eta Lurralte Antolamendu eta Ingurumen Sailak, IHOBE S.A.ren bitartez, etxebitzitzaren kalitatea eta euskarritasuna haren bizi-ziklo osoan ona eta benetakoia izan dadin behar diren neurriak erabiltzea adostu dute. Ziklo hori hirigintza-plangintzatik hura errautsi eta hondakinak birziklatu artekoa da. Horre-

la, marko honetan egiteko jarduerak orientatu eta sustatzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebitzitzaren Eraikuntza Euskorrerako Gidaliburua eta Balorazio Kodea garatzeko prozesua ezarri da, sail eta sozietate publikoetako langileek osatutako diciplina anitzetako lantalde batek bultzatu du. Hemen ageri da oraindik garatzen ari den prozesu honen egungo egoera.

Etxebitzitzak eusteko moduan eraikitzeko Gidaliburuan aribide onen zerrenda zabala jasota dago, etxebitzitzak eraikitzeko aplikatu ahal dena eta haien bizi-ziklo osorako dena. Izan ere, hora kontutan hartu behar da hirigintza-plangintzatik errausketan eta etxebitzitzak ustiatzeko eta artatzeko eragiketetan lortutako hondakinak (edo materialak) kudeatu arte. Zerrenda horretako aribide onen barruan sartuta daude zenbait neurri, etxebitzitz-eraikinak ingurumenari eusteko modukoak izan daitzen lagungarri izan behar dutenak. Alabaina, eraikinon kalitatea kontutan hartu behar da eta ez da prestazio edo azken erabiltzaileari begirako funtzionaltasunik galdu behar.

Gidaliburua gomendio edo "aribide on"en zerrenda jasotzeko helburuz garatzen ari da eta ez da eraikuntzaren eremuan neurriok sartzeari buruzko ingeniaritza edo arkitektura itunben zorrotza izango. Ildo horretatik, kontutan hartu da eraikuntzaren eragile arduradunek neurriok eraikinen diseinuetan eta burutzapenetan sartzeko erari buruzko informazio zehatzagoa lortu ahal dutela iturri askotatik.

Horrela, Gidaliburuarekin bat etorririk, ez da derrigorrezkoa kalkulu metodo jakin bat aplikatzea. Gidaliburuaren erabiltzaileek alternatibak baloratzeko eta jasotako gomendioetara gehien doitzenten dena auke-ratzeko erabiltzeko metodoak eta tresnak aukeratu ahalko dituzte.

1. Azken BATZ.(2004)60: Towards A Thematic Strategy On The Urban Environment. Communication From The Commission To The Council, The European Parliament, The European Economic And Social Committee And The Committee Of The Regions. Brusela, 2004ko otsailaren 11.

Ikusiko den bezala, fitxa bakoitzak ingurumeneko eraginaren arlo batentzat edo zenbaitentzat puntuazio zehatza erantsirik du, proiektuari neurriaren ezarpen mailaren arabera emango zaiona. Horrela, ezarritako neurri edo fitxei emandako puntuak batuta, eraikitze-proiektuaren euskarritasun mailaren balorazioa lortu ahalko da.

Eusteko moduko Eraikuntzari buruzko Gidaliburua eremu horretan inplikaturiko eragile guztiak erabiltzeko agiri bezala egituratu da. Eragilezkoak dira sektoreko profesionalak, hau da, sustatzaileak, eraikitzaleak, zuzendari taldeak, materialgileak eta abar; baita herri administrazioak, hau da, hiria antolatzeko arduradunak, etxebizitza publikoak eraikitzeko eragileak, aldundiak, udalak, eta eusteko moduko eraikuntzan erantzukizuna duten beste eragile batzuk ere. Jarduketa-marko horretan beharrezkotzat jo da, halaber, eraikinaren balio-katean azken erabiltzai-



lea sartzea. Izen ere, figura hori, egun, eraikina bukatuta dagoenean bakarrik agertzen da eta arlo honetan garrantzi urria du.

Beste alde batetik, Eusteko moduko Eraikuntzaren Balorazio Kodea honako helburuok lortzeko garatzen ari da.

- Etxebizitzak eraikitzeko proiektuen euskarritasun maila ebaluatu ahal izatea.
- Etxebizitza-eraikinen ingurumenarekiko euskarritasuna baloratzeko era bereko sistema inpartziala ezartzea.
- Ondoan eutsi ahal zaion alternatiba aukeratzeko metodoa ematea (diseinu ezberdin arteko erkapena).
- Euskortasunaren ikuspuntutik ahalak diren diseinuko puntuak identifikatzea.
- Euskortasuna bultzatzen duten kontzeptuak eransten dituzten etxebizitza-proiektuak ezagutzeko procesua ahalbidetzea (etxebizitza-proiektuaren euskarritasun-etiketaketa).

Balorazio Kodea errazki erabili ahal den tresna ekartzen duen metodo azkar eta eraginkorra sortzeko helburuz garatzen ari da. Izen ere, bertan ez da datu askoren beharrik eta hura erabiltzen duten sektoreko profesionalak ez dute denbora itzel luzerik ez dirutzarik zertan hartu ezta ekarri.

Aipatu kodeak zenbait adierazkari (ingurumeneko eraginaren kategoriak²) hartuko ditu barnean. Berauen bitartez ebaluatu ahalko dira eraikinaren bizi-zikloan eragina urritu ahal duten arloak. Aipatu Balorazio Kodean, adierazkariak ebalutzeko eta neurtzeko metodologia bat kontutan hartuko da, halaber. Gauzak horrela, eraikinaren bizi-ziklo osoko euskarritasuna hobetzeko neurriak ezartzear batera, ingurumeneko eraginaren kategoriak puntuatuko dira. Fitxa

guztien puntuazioak baturik, ingurumeneko eraginaren arlo bakoitzarentzako balio bat lortu ahal izango da. Balio horrek proiektuak neurriok aplikatzea jasota ez dauden ohiturazko proiektuen aldean dakarren hobekuntzarekin zerikusia izango du.

Etiketaze-prozesuari dagokionez, balorazio-prozeduran kontutan hartuko da proiektuari euskarritasun-indize bat esleitu behar zaiola. Proiektuari bere euskarritasun-indizea esleitzeko, eraginaren kategoria bakoitzaren puntuazioak baturik lorturiko balioak atalase-balioekin erkatu beharko dira.

Eusteko moduko Etxebizitzaren Balorazio Kodeari prozesua modu automatikoan egiteko balioko duen tresna informatikoak eutsiko dio. Tresna horrek erabiltzaileari informazioa emango dio, bere proiektua euskarritasunaren ikuspuntutik xehetasunez aztertzeko beharrezko duena.

Aurretik azaldu den bezala, tresna horiek lortzeko prozesua ez dago bukaturik; izan ere, oraindik burutzen ari da. Garatzen ari den lanean egindako azken urratsak honako hauek izan dira: eusteko moduko eraikuntzan esku hartzen duten eragile ugarien artean egindako agiriak eta tresnak zabaltzea eta beraien edukiak eragile horiek kontutan harturik ondo dauden egiazatzeko prozesua hastea. Prozesu horren ostean, eragileok adierazitako arlo egokiak eransten ari dira. Era berean, orain garatzen ari den lanari jarraiki, aztertzeko zenbait kasuri Balorazio Kodea aplikatu ahalko zaie. Aipatu Kodea aplikatze horrek bi helburu ditu: Kodea ikuspuntu praktikotik aplikatu ahal den aztertzea, zertarako-eta beronen eraginkortasuna eta bizkortasuna mugatzen duen arazoak konpontzeko bera egokitzeo; eta garatutako metodologia baliozkotzea.

2. Lanaren barruan ingurumeneko eraginaren 10 kategoria zehaztu dira: material-konsumoa, energi konsumoa, edateko uraren konsumoa, ur grisak sortzea, hondakinak sortzea, atmosferarako emisioak, barruko airearen kalitatea-erosotasuna-osasuna, garraioa, lurzoru erabilera/konsumoa eta ekosistemako eragina

3. ZARATARIK EZ: Lan-leku seguru eta osasungarriagoaren alde

Laneko zarataren ondoriozko entzumen-galera Europar Batasuneko gaixotasunik ohikoena da. Osasunerako Mundu Era-kundearekin bat etorririk, zaratak eragindako entzumen-galera da “ezin alderantzi-katuzko lanbide gaixotasun nagusia”.

Europako langileen herenek, gutxi gorabehera, zarata maila altua jasaten dute beren lan-denboraren laurden batean baino gehiagoan. 85 dezibeletik gorako zarata mailak luez jasateak entzumen-kalteak egin ditzake. Gainera, zarata jasateak osasun-arazoak eragin ditzake, hala nola, estrés handiagoa, gortasuna, tinnitusa (edo akufenoa, belarriko leherketa, burrunba edo txirrin sentsazioak), fetuanen kontrako haurdunaldiko ondoreak, sistema kardiobaskularreko arazoak eta abar; eta laneko istripuetarako arrisku handiagoarekin oso zerikusi handia du.

Zaratak eragindako kalteetarako arriskuak ez du zerikusirik maila akustikoarekin (bizi-tasunarekin) bakarrik, baita aipatu zarata jasaten den denborarekin ere. Arlo hori kontutan hartzeko, haren iraupenaren ara-

bera neurututako batezbesteko soinu mailak erabiltzen dira. Lan-lekuaren zaratarik izanez gero, iraupen hori zortzi orduko lansaiaren baliokidea izaten da. Maiztasuna ere faktorea izan daiteke, eta zarata mota.

Zarata jasaten duen edozein pertsona arrisku-talde batekoa da. Langilerik gehienek beren lan-lekuaren zarata jasaten dute. Zarata arazo izan daiteke edozein lan-ingurunetan: fabriketan, bordetan, kontzertu-aretoetan, eraikitze-obretan, eskolan eta abarretan. Eta edozein lekutatik etorri ahal da: makinetatik, pertsonengandik...

Enpresarioen betebeharak

Zarataren kontrako langileen babesia 1316/1989 araudiaik arauputeta dago (hura aurreko 86/188/EEEtik hartzeta da, hitzez hitz). Alabaina, laneko zarata ahalik eta txikiarena izateko ingurune-baldintzak hobetzeko xedez, 2003/10/EB Zuzentara berria aldarrikatu zuen Europar Batasunak 2003an. Herri kide guztiek zuzentara berri hori beren nazio-legeetan 2006ko otsailaren 15a baino lehen ezarri beharko

dute. (zuzentara hori jarri da 86/188/EEE Zuzentarauren ordez).

Zuzentara horrek emandako neurrietako bat zarata egunero jasateko gehieneko muga 87 dezibelen eta Ppico 200 Pa piku-ko presio akustikoaren baliokidea izatea da. Balio hori aurreko 86/188/EEE Zuzentaraak aipatutako gehieneko 90 dB(A)ko maila baino 3 dezibel gutxiagokoa da.

87 dBA-ko muga-balioa, edo 200 Pa-ko, langileek belarrietan eta entzumenean ezin sendatzeko kalterik jasan ez dezaten finkatu da. **Ezein momentutan gainditu behar ez den** zarata-jasanaren maila da eta entzumena babesteko ekipoaren era-bilera kontutan harturik du.

Aipatu muga gaindituz gero, zarata-jasanaldia berehala urritzeo eta horrelako egoerak errepikatzea saihesteko neurriak hartu behar dira.

Zuzentara berrian, muga edo gehieneko balioaz gain, neurriak hartzeko moduko beste bi jasan balio zehaztu dira:

- Gehienekoa: 85 dB(A) eta (Ppico) 140 Pa.
- Gutxienekoa: 80dB(A) eta (Ppico) 112 Pa.

Aplikatu ahal den legeria

Kontseiluaren 1989ko ekainaren 12ko **89/391/EEE Zuzentaraua**, langileen laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea sustatzeko neurriak aplika-tzeari buruzkoa.

Kontseiluaren 1989ko azaroaren 30eko **89/656/EEE Zuzentaraua**, langileek eragile fisikoen ondoriozko arriskuak (zarataren ondoriozkoak) jasateari buruzko gutxieneko segurta-sun- eta osasun-xedapenei buruzkoa.

Europako Parlamentuaren eta Kon-tseiluaren **2003/10/EB Zuzentaraua**, langileek eragile fisikoen ondoriozko arriskuak (zarataren ondoriozkoak) jasateari buruzko gutxieneko segurta-sun- eta osasun-xedapenei buruzkoa.

Urriaren 27ko **1316/1989 Errege Dekretua**, lanean zarata jasatearen ondoriozko arriskuen aurreko langile-en babesari buruzkoa.



1316/1989 Errege Dekretua
2003/10/EB Zuzentara berria
Muturreko maila

- Entzumena hasieran kontrolatzea
- Prestakuntza eta informazioa
- Postua urtero ebaluatzea
- Entzumena urtero kontrolatzea
- Entzumen-babesteko derrigorrezko erabilpena
- Neurri teknikoetarako eta antolakuntzazkoetarako programa
- Sarbidea seinaleztatu eta kontrolatzea

140 dB
**Jasateko muga-balioa
Muturreko Maila⁽²⁾**
137 dB
**2. Ekintza Maila,
Muturreko Maila⁽¹⁾**
135 dB
**1. Ekintza Maila,
Muturreko Maila⁽¹⁾**
Eguneko 3.- Maila baliokidea

- Entzumena hasieran kontrolatzea
- Prestakuntza eta informazioa
- Postua urtero ebaluatzea
- Entzumena urtero kontrolatzea
- Entzumen-babesteko derrigorrezko erabilpena
- Neurri teknikoetarako edo antolakuntzazkoetarako programa
- Sarbidea seinaleztatu eta kontrolatzea

90 dBA
**Jasateko muga-balioa
Eguneko Maila⁽²⁾**
87 dBA
**2. Ekintza Maila, Eguneko Maila
baliokidea**

- Zarata urritzeko programa
- Prestakuntza eta informazioa
- Sarbidea seinaleztatu eta kontrolatzea
- Belarriak derrigorrez babestea eta babesteko erabilpenaren jarraipena egitea
- Entzumen-funtzioa kontrolatzea

Eguneko 2.- Maila baliokidea

- Entzumena hasieran kontrolatzea
- Prestakuntza eta informazioa
- Postua urtero ebaluatzea
- Entzumena 3 urtero kontrolatzea
- Entzumen-babesteko derrigorrezko hornikuntza

85 dBA
**1. Ekintza Maila, Eguneko Maila
baliokidea**

- Prestakuntza eta informazioa
- Dauden babesgailuak
- Entzumen-funtzioaren prebentzioko kontrola, baldin eta arriskurik badago.

Eguneko 1.- Maila baliokidea

- Entzumena hasieran kontrolatzea
- Prestakuntza eta informazioa
- Postua urtero ebaluatzea
- Entzumena 5 urtero kontrolatzea
- Entzumen-babestekoak eskatzen dituztenei ematea

80 dBA

(1) Muturreko Mailan hartu beharreko ekintzak Eguneko Maila Baliokideari dagokion Ekintza Mailan azaldurikoen berdinak dira

(2) Langilearen benetako jasanaldian Jasanaren Balioa zehazterakoan, kontutan hartzen da entzumen-babestekoek egokitzapena

Makinen eta beste ekipo batzuen fabrikatzaila zarata mailak urritzeko erantzunkizuna dagokie, halaber. 98/37/EE Zuzentaraurrekin bat etorririk, **makineria** “sortutako aire-zarata ateratzearen ondoriozko arriskuak ahalik eta txikienak izan daitezen diseinatu eta fabrikatuta egongo dira”.

Enpresarioek beren langileen osasuna eta segurtasuna laneko zarata arrisku guztien kontra babesteko dituzten **betebehar** nagusietakoa da arrisku-ebaluazioak egin eta kontrolatzea.

Enpresarioak “langileek jasaten dituzten zarata mailak **ebaluatu eta, behar izanez gero, neurru** beharko ditu”, izan daitezkeen arriskuak oro kontutan hartuta.

Ebaluaketa eta neurketa “eskudun zerbitzuek **programatu** eta burutuko dute bitarte egokitan”. Jasaten den zarata maila ebaluatu edo/eta neurturik **lortutako datuak “gordeko dira**, gero kontsultatzeko modu egokian”.

Jasaten diren zarata mailak zein diren zehazten dituen arrisku-ebaluazioa aldzka eguneratu beharko da. Iza ere, gertatu ahal diren aldaketa esanguratsuak kontutan hartu beharko dira. Hori guztia egin beharko da, eta osasuna begiratzetik ateratzen diren emaitzek beharrizan hori agerian jartzen badute.

Arriskua ebaluatzeko unean kontutan hartu beharko dira, zarataren entzumeneko ondoreez gain, zarataren belarrientzako beste poluitzaile toxiko batzuekiko elkarrekintzaren ondoriozkoak eta zarata eta bibrazioak jasatearen ondore uztartu posibleak. Era berean, arreta jarri beharko da zarataren eta alarma- edo segurtasun-seinale akustikoen arteko elkarrekintza posiblearen gainean.

Halaber, ezarri denez, aurrerapen teknikoak eta arrisku hasieratik kontrolatzeko neurriak eskuratu ahal direla kontutan hartuta, **zarata jasatearen ondoriozko arriskuak hasieratik bertatik ezabatu beharko dira** edo ahalik eta maila txikienera urritu.

Nabarmenzeko denez, **langileen arlo batzuetako konsulta eta parte-harmena** finikatu da; hona hemen arlook: arriskuak ebaluatzea eta hartzeko neurriak zehaztea, zarata jasatearen ondoriozko arriskuak eza-

koa, baita antolatze- eta kontratatzefase- etarakoa ere.

Obrako lanak hasi ostean, zarata jasateko **arriskuak ebaluatu eta kontrolatu** beharra dago. Horretarako kontutan hartu behar da gai honi buruz aurretik adierazirkoa.

Obrako zarata mailak ebaluatzerakoan, honako elementuok hartu behar dira kontutan:

- **Langileak eta beraien zarata-jasana:** jasatearen maila, mota eta iraupena; langileen osasunarentzako eta segurtasunarentzako ondoreak eta arriskuak...

- **Ezagupen eta informazio teknikoak:** lanerako ekipoen soinu-emisioei buruzko informazioa, soinu-emisioak urritzen dituzten beste ekipo batzuen existentziari buruzkoa, osasuna begiratzeko agintarienai, entzumen-babesteko existentziari buruzkoa...

Eraikitze-obretan maiz aldatzen da lana. Hori dela eta, funtsezko da arrisku-ebaluazioa berriro ikuste eta hartutako **kontrol-neurriak aldaraztea** eta lan-baldintza berriei egokitzea.

Obrako zarata kontrolatzeko neurriak honako hurrenkera kontutan hartu behar dira:

- **Zarata-iturriak ezabatzea.** Eraikitzeo edo lan egiteko metodoak aldatu behar dira...

- **Zarata hasiera-hasieratik kontrolatzea.** Horretarako, zarata txikiagoa ateratzen





duten makinak erabili behar dira, metalaren gaineko eraginak saihestu behar dira. Era berean, ildo horretatik, prebentziozko mantencionmendua egin behar da.

- **Kontrolerako talde-neurriak.** Ildo horretatik, prozedura zaratatsuak isolatu behar dira eta material zurgatzaileak erabili eta lana alde zaratatsuetako presenzia muga dadin antolatu eta abartzekoa abartu. Kontratarien arteko komunikazioa funtsezkoa da.

- **Banakako babeserako ekipoak.** Lanerako eta zarataren motarako eta iraupenerako egokiak eta gainerako babes-ekipoekin bateratu ahal direnak izan behar dute.


Kontutan hartu behar da ezen Zuzentara berria aurki aplikatuko dela eta horrek esfortzu handia egitea ekarriko diela administrazioei eta enpresei. Izan ere, zarata jasatearen 3 db(A)-ko urripena (90 dB(A)-tik 87rakoa) zarataren bizitasuna erdira txikitzearen balioidea da.

Langileek haien nola erabili, bildu eta artatu jakiteko prestakuntza jaso behar dute.

Lan-lekuko zarataren gaindikina ezabatu edo urritzea ez da enpresaren legezko erantzukizuna bakarrik: enpresen lehiakortasunean zuzeneko eragina du; izan ere, zenbat eta lan-ingurunea seguru eta osasungarriagoa izan, hainbat eta txikiagoa izango da lanerako istripuetarako, lanera ez agertzeko eta abarretarako probabilitatea.

Egoera berri honen lanpostu asko eta asko ukituko ditu. Lehenbailehen abiatu behar da, eta zarata urritzen eta kontrolatzetan hasi eta aurrerantzeko aldaketetarako prestatu.

4. EAEko gaikako eraispen-proiektuak egiteko Gida Metodologikoa



Maiatzaren 31n honakoa aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak "Hondakinen birziklatze eta berrerabiltsari buruzko Jardunaldian, 2005eko Aste Berdean sartutako jardunaldian: "Euskal Autonomia Erkidegoko gaikako eraispen-proiektuak egiteko Gida Metodologikoa". Berau IHObE Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoarekin elkarlanean argitaratu da.

Eraikintzaren sektorean jarduera jakin batzuk gehiagotu dira, hala nola, eraikuntzak eta obra zibileko azpiegiturak eraikitzea. Hori dela eta, eraikin gehiago errautsi behar dira. Horrek izaera ezberdinako hondakin asko sortu ditu eta horrelako hondakin asko aprobetxa daitezke.

Horretarako, aipatu Gidaliburu argitaratu da. Bertan honako arlo hauek jorratu dira, besteak beste: errausketa-hondakinei aplikatu ahal zaien arautegia; gaikako eraispenaren abantailak eta eragozpenak etapak

eta emaitzako hondakinen aprobetxamendua; prozesu horretan kontutan hartzeakoak diren ekonomi faktoreak; gaikako eraispena eta birziklapena sustatzeko tresnak; eta errausketa-hondakinak kudeatzea.

Gidaliburu hau Ihoberen honako web orrialde honen bitartez lortu ahal da: www.ihobe.net.



5. Hemeroteca

Birgaikuntza eztabaidegai nagusi EUROCONSTRUCTen

ITEC-ek hurrengo EUROCONSTRUCT bileran antolatzen dihardu. Berau Bartzelonan egingo da Bartzelonako Comptes Hotelean azaroaren 28an eta 29an. Eraikintzaren sektorearen ekonomi prospektibari buruzko Europako talde horren neguko txostenia aurkeztuko da bertan.

Zehazki, Europako merkatuek datozen hiru urteetan egoitzak eta egoitzak ez direnak eraikitzeo eta ingeniaritza zibila burutzeko arloetan nolako joerak izango dituzten aztertuko da.

Beste alde batetik, Euroconstruct-en edizio honetarako aukeraturiko gai berezia, konferentziaren azalpen zatia izango baita, jarduerak berriro gaitzeko merkatua izango da. Bertan du sektoreak egungo ziklo positiboa luzatzen jarraitzeko itxaropena.

Egitarau osoa ikusteko honako webgune hauek daude: www.euroconstruct.org eta www.itec.es

Iturria: www.seopan.es (2005/09/22)

Birziklatutako materialak erabiltzeak ez du eraginik hormigoiaren kalitatean

Vigoko enpresa batek burututako azterketak erakutsi duenez, obretan euretan sortutako hondakinez aldez egindako nahasteek lehen eskuko materialez egindako beste batzuen antzoko ezaugarriak dituzte, aukeraketa-prozesua zuzena izan bada.

Hormigones Miño Vigoko enpresak garatzen dabilen ikerketa-proiektuan honakoa aztertzen dihardu: nola ekoitzi eraikintzako hondakinatik datozen



materialekiko nahastea, zertarako-eta hondakindegietan ahalik eta horrelako material gutxien pilatzeko.

Roibásek aitortu duenez, eraitsitako hormigoiak zapaltzetik datorren lehengaia ez du besteen kalitate berbera izango: "egin-eginean ere, Europako eta Espainiako arautegiek gehienez egituretarako hormigoietan birziklatutako agregakinen %20 eranstea onartu dute, baina beraien erabilpenak ez du mugarrak erresistentzia txikiagoko nahasteetan, bestelako lanetan erabiltzen diren nahasteetan alegia".

Hala ere, behar bezala sailkatu eta bereizi ondoren, agregakinok produktu ezberdinak beren ezaugarrien arabera egiteko balio izan lezakete, hala nola, betegarriak, base edo oinariak eta garbiketa-hormigoiak.

Zuzendariak azaldu duenez, "egitura-hormigoiei buruz jakin dugu ezen agregakinen %20ren ordez haren homologo birziklatua erabiltzeak normalen antzoko ezaugarriak dituzten konposatuak ekartzen dituela baldin eta berriro erabiltzeko materialak behar bezala aukeratzen badira".

Gainera, hark esan duenez, produktuaren kalitatea oso ona dela; egin-eginean, hormigoian %40 ordeztu arren ere, hormigoiak normalen antzoko propietateak agertzen jarraitzen du. Hark baiezta duenez, egituretarakoak ez diren hormigoietan erabili ahal dira birziklatutako materialen %100 ere".

Iturria: www.tecnociencia.es, 2005/09/16

Itaun postontzia



eraikal@ej-gv.es

"ERAIKAL BERRIAK" informazio-aldirikariak postaren bidez jaso nahi baduzu zure eskaera itaun-ontziaren bidez "eraikal@ej-gv.es"-era Hartzale, Enpresa eta Helbidea adierazten.